



# MONDRAGON FUNDAZIOA

## BIDERKATZEN DUEN BATURA

# 2023

MONDRAGON



GIZATASUNA  
LANEAN

Finantzak  
Industria  
Banaketa  
Ezagutza

# GIZARTEA ERALDATZEKO MEKANISMOA

Enpresatik ere gizartea eralda daiteke. Izan ere, enpresek aldaketa positiboko eragile izateko gaitasuna eta erantzukizuna dute, eta horien irismena, baliabideak eta gaitasunak erabiltzen dituzte gizarteari zein planetari mesede egingo dien aurrerapena bultzatzeko. Asmo horrekin sortu zen MONDRAGON Fundazioa, bere ekarpenen bidez gure kooperatibak indartzen laguntzen duen erakundea: gizarte aberatsago, bidezkoago eta berdintasunezkoago baten egituratzailea.

MONDRAGON Fundazioak MONDRAGONeko kide diren kooperatiben ahaleginari esker egiten ditu bere jarduerak, izan ere, kooperatiba horiek beren urteko emaitzen zati bat Fundazioari bideratzen diote.

Azken batean, elkartasun eta lehiakortasun mekanismo bateratu handia da, gure kooperatibei laguntza ematen dielako eta negozioak indartzen laguntzen duelako.

**MONDRAGON Fundazioa, 25 urtetik gorako bere historian zehar, 500 M €-tik gorako ekarpenak kudeatzera ere iritsi da**







Mondragon Fundazioaren Patronatua. Ezkerretik eskuinera: Edorta Herce, Juan M<sup>a</sup> Palencia, Rosa Carabel, Iñigo Ucin, Pello Rodriguez, M<sup>a</sup> Jose Pagalday, Zigor Ezpeleta, Adolfo Plaza, Olatz Imaz, Juan Angel Garcia, Oscar Goitia, Amets Ugalde eta Iker Alberdi. Argazkia Fundazioak apirilaren 9an Ederteken egindako azken bileran ateratakoa da.

## GIZARTE EKINTZA

Enpresaren *begirada soziala* gizartearen eta planetaren ongizatearekiko konpromiso sakon batean zehazten da, betiere onartuta enpresa arrakasta gizarte eta ingurumen aurrerapenarekin lotuta dagoela berez.

MONDRAGON aspaldian ari da joko arau horien arabera. Nahikoa da MONDRAGONek eta bere kooperatibek gizarteari egindako ekarpenari begirada bat ematea, berezkoa duen enpresa jarduera propioa alde batera utzita. Enpresa eredu batean (hots, kooperatiboan) gauzatutako konpromiso sorta zabala, gizarte homogeenago baten ideian fokua jarrita, gure kooperatiben garapenaren bidez. Azken batean, enpresa egiteko modu demokratiko eta inklusibo bat, proiektu lehiakorak eta jasangarriak egiteko kudeaketan parte hartzen duten jabeekin eta langileekin.

Eta MONDRAGON Fundazioa bokazio horren zerbitzura dagoen oso tresna baliotsua da. 25 urtetik gorako bere historian zehar, 500 M €-tik gorako ekarpenak kudeatzera ere iritsi da.

## Enpresa arrakasta berez lotuta dago gizarte eta ingurumen aurrerapenarekin



## BIDERKATZEN DUEN BATURA

Kooperatibek Fundazioari egindako ekarpenen eragin biderkatzailea azpimarratu behar da; izan ere, horien balio agregatuak beste dimentsio bat lortzeko eta, hala, balioa sortzeko aukera ematen baitio Fundazioari, inpaktuari eta eraldaketa sozialari dagokionez.

### 2023KO EKARPENAK

---



**27,8** MILIOI EURO



1. KOOPERATIBISMOA SUSTATZEA

**18,1 M€**



2. BERRIKUNTZA ETA SUSTAPENA

**4,9 M€**



3. HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA

**4,3 M€**



4. KOMUNITATE JASANGARRIAK

**0,5 M€**





1.

## KOOPERATIBISMOA SUSTATZEA


Enpresa egiteko modu arduratsu,  
demokratiko, lehiakor eta jasangarria

18,1 M€

- Kooperatibentzako laguntza nazioartean.
- Hainbat negozio eremutako lankidetzak proiektuak bultzatzea.
- Finantza lankidetzak kooperatibekin, hazkunde eta garapen proiektuetan.
- Kooperatiben arteko elkartasuna bideratzea, galerak konpentsatuz.







Kooperatiben nazioarteko garapenerako laguntza ere agertzen da Fundazioaren agendan. Argazkian, lantalde bat, Fagor Arrasatek Txinan duen plantan.



MONDRAGONen XI. Foroa. 400 pertsona inguru [kooperatiba guztietako gerente eta lehendakariak] kursaalean bildu ziren hitzordu korporatibo honen hamaikagarren edizioan. "MONDRAGON etapa berri baten aurrean" izenburupean, "MONDRAGONeko esperientzia kooperatiboaren orainari eta etorkizuneko erronkei" buruzko hausnarketa egin zen.



2.

## BERRIKUNTZA ETA SUSTAPENA

Negozioen eta gizartearen  
eraldaketarako ezagutza

4,9 M€

### BERRIKUNTZA

Berrikuntzako lankidetzak sustatu da, digitalizazioa, jasangarritasuna eta pareko beste funtsezko esparru batzuk babestuz.



MONDRAGON Health, ekimen korporatibo berria, gizarte eta osasun arloan, Fundaziotik bultzatuta.



Lortek ikerketa zentroa Ordizian [Gipuzkoa]. Aurren, Smartlab digitalizazio teknologietan espezializatutako laborategia jarri du abian.



## SUSTAPENA

Etorkizuneko sektore berrietan jarri da fokua, sustapenaren esparruan erreferentziazko *partnerrekin* lan eginez, hala nola, Clave, ICO eta beste erakunde publiko batzuekin.



Keiretsu 2024, startup industrialetan inbertitzeko foroaren hirugarren edizioa.



Hirekin, industria berrikuntzarako zentroa, 2024an inauguratuko da.



Garaia parke teknologikoa, jarduera berriak gauzatzeko topagunea.



Gaztenpresaren bidez ekintzailatza sustatzeak ere jasotzen du Fundazioaren laguntza.

## EKINTZAILETZA

Ekosistema ekintzaileak garatzen laguntzea, hainbat erakunderen bidez (Saiolan, Gaztenpresa...), eta ingurune erakargarriak (Garaia Parke Teknologikoa) eta jarduera berriak gauzatzen lagunduko duten hainbat ekitaldi sortzea.



3.

## HEZIKETA ETA PRESTAKUNTZA

Ekosistema ekintzaile,  
ireki eta berritzailea

4,3 M€

### PRESTAKUNTZA KOOPERATIBOA – OTALORA

- Kooperatibetako gobernu organoetako kideei, zuzendaritza organoei eta bazkideen kolektiboari, oro har, prestakuntza eskaintzen die.
- Kooperatibismoak Euskal Herrian izan duen garapenak eta horrek pizten duen interesak MONDRAGONeko Esperientzia Kooperatiboa zabaltzeko beharra sustatzen du.

Heziketa kooperatiboa. Otorak heziketa kooperatiboarekin eta kooperatibismoaren hedapenarekin duen konpromisoari eusten dio.




MONDRAGON Experience. Espazio berria Otoran, hedapen kooperatibora bideratuta.





## HEZKUNTZA ZENTROAK

Lankidetza ikastetxeekin (Arizmendi Ikastola, Lea Artibai eta Txorierri Ikastetxea), haien inbertsio beharrak elkarrekin finantzatzuz, azken belaunaldiko ekipamendu teknologikoa izan dezaten.



3KIMU proiektua, STEAM bokazioak piztea helburu. Bertan bildu ziren Arizmendi Ikastola, Txorierri Ikastegia, Lea Artibai Ikastetxea, Mondragon Unibertsitatea eta MONDRAGON.

## UNIBERTSITATEA

Mondragon Unibertsitateari laguntza, hezkuntza eredu propioa (*Learning by doing*) eta enpresekin harreman estua sustatzen baitu.



First Lego League, gazteen artean bokazio zientifikoa eta teknologikoa sustatzea helburu duen nazioarteko ekitaldia. Mondragon Unibertsitatea eta MONDRAGONek antolaketa parte hartu dute.



TFG/TFM MONDRAGON Sarien bigarren edizioan, 37 unibertsitatetako 253 lan aurkeztu ziren. Unibertsitateen artean zeuden Euskal Herriko hiru nagusiak.





4.

## KOMUNITATE JASANGARRIAK

Lurralde inklusibo askotarikoak  
eta klimatikoki neutroak


0,5 M€

### EUSKARA

Fundazioak euskararen normalizazioa babesten du lan eremuan.



MONDRAGONEk euskararen erabileraren aldeko apustu irmoa egin du lan eremuan. Argazkian, aurtien Bilbon egindako *Languages lanean* kongresua.



*Euskaraz izango gara* da Danobatgroupen azken Euskararen Plan Estrategikoaren leloa.





Copreci Turkiak zientzietako laborategiaren muntaketan parte hartu zuen Malatya hiriko ikastetxean.



MUNDUKIDE Mozambike iparraldeko nekazari familiekin lankidetzan aritu da.

## POBREZIA ETA INKLUSIOA

Lankidetzan ari gara garapen bidean dauden herrialdeetan garapena bultzatzen duten mugimenduekin. Ekonomia solidarioago baterantz aurrera egin nahi da, balio kooperatiboagoekin, gizarte bidezkoagoak egiteko.

## ENERGIA O KM


Erregai fosilak energia iturri berriztagarrietara (eguzki energia, energia eolikoa, hidroelektrikoa, eta beste teknologia garbi batzuk) aldatzeko proiektuak sustatzen ditu edo horietan parte hartzen du, energia neutraltasuna lortzeko.

Ekiola, energia komunitateak sustatzeko lankidetzak publiko-pribatua. 2024an hainbat kooperatiba jarriko dira abian.



Jardunaldia Polo Garaian, MONDRAGON Jasangarria proiektuan egindako aurrerapenak partekatzeko.





MONDRAGON Fundazioa  
Paseo José María Arizmendiarieta 5  
20500 Mondragón · Gipuzkoa  
[www.fundacionmondragon.com/eu](http://www.fundacionmondragon.com/eu)